



**Azalpen txostenak, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuaren aurrekontuak indarrean dagoen aurrekontuarekin alderatuta agertzen dituen desberdintasun nagusiei eta haien prestatzean erabilitako irizpideei buruzkoa.**

Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako aurrekontu proiektua egin da emaitzak lortzera bideratutako jarraibideak oinarritzat hartuz.

Horrela, programak departamentuari atxikitako helburuetara egokitzen jarraitu da, eta adierazle nagusiak garatu dira.

#### 01- Programa- Zerbitzu Orokorrak

Programa honek, izaera generikoa duenez gero, aurreko aurrekontuak zehaztutako irizpideak jarraitzen ditu eta Departamentuari atxikitako helburuak betetzen laguntzen du.

#### 10. programa - Ingurumena

Programa honek jasotzen ditu Ingurumen Zerbitzuak dituen izaera orokorreko jarduketa guztiak, baita eremu funtzionalei komunak zaizkienak ere, beste hainbeste aurrekontu programatan zehazten direnak. Barne hartzen ditu alderdi hauei dagozkien zuzkidurak: azterlanak eta irizpenak, bulegoko materiala, dietak, altzariak, telefonía, ekipamendu informatikoak, Interneteko ataria mantentzea, Departamentuaren komunikazioa, eta abian diren Europako projektuen (Life URBAN) garapen eta jarrainen dagozkien zuzkidurak, bai eta hautagaitza berriak egitea ere.

Premiak oso antzekoak dira 2023rako, baina II. kapitulua pixka bat handitu da, Europako proiektuetarako hautagaitzak prestatzeari aurre egiteko.

#### 11. programa - Ekonomia zirkularra

2023ko aurrekontuak foru arau honetako ekintza-programak betetzeari erantzuten dio: 6/2019 Foru Araua, martxoaren 20koia, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 Plan Orokorra onesten duena, eta GHKri (Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa) egindako ekarpena barne hartzen du.

**Informe explicativo de las diferencias más significativas que presenta el presupuesto del Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas respecto al vigente y los criterios adoptados en su elaboración.**

Se ha elaborado el proyecto de presupuestos del Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas, siguiendo las directrices que lo orientan a la obtención de resultados.

Se continúa adaptando los programas existentes a los objetivos asignados al departamento y se han desarrollado los indicadores principales.

#### Programa 01-Servicios Generales

Este programa, dada su naturaleza genérica, sigue los criterios marcados en el presupuesto anterior, contribuyendo al cumplimiento de los objetivos asignados a este Departamento.

#### Programa 10- Medio Ambiente

Este programa comprende todas las actuaciones de carácter general del Servicio de Medio Ambiente y las comunes a las áreas funcionales, que se concretan en otros tantos programas presupuestarios. Incluye las dotaciones correspondientes a estudios y dictámenes, material de oficina, dietas, mobiliario, telefonía, equipos informáticos, mantenimiento del portal-web, comunicación del Departamento y el desarrollo y seguimiento de proyectos europeos en curso (Life URBAN), así como la elaboración de nuevas candidaturas.

Las necesidades son muy similares de cara a 2023, si bien se incrementa ligeramente el capítulo II para hacer frente a la preparación de candidaturas a proyectos europeos.

#### Programa 11-Economía circular

El presupuesto de 2023 da respuesta al cumplimiento de los programas de acción de la Norma Foral 6/2019, de 20 de marzo, por la que se aprueba el Plan Integral de Gestión de Residuos Urbanos de Gipuzkoa 2019-2030, e incluye la aportación al GHK (Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa).



2023rako aurrekontu beharrak handitu egingo dira 2022koen aldean, batez ere Next Generation (Plastikoaren Polo Partzuergoa) proiektuetatik eratorritako premiengatik, VII. kapituluan igoera handia eskatzen baitu. Era berean, igoera txikiagoak izango dira II. eta IV. kapituluetan, ekonomia zirkularra eta hondakinen prebentzioa sustatzeko hainbat programa indartzeko.

Las necesidades presupuestarias para 2023 se incrementan respecto a las de 2022, debido, especialmente, a las necesidades derivadas de los proyectos Next Generation (Consorcio Polo del Plástico) que requiere de un fuerte incremento en el capítulo VII. Así mismo, se producen incrementos de menor entidad en los capítulos II y IV con objeto de reforzar diversos programas de promoción de la economía circular y la prevención de residuos.

#### **12. programa - Jasangarritasuna eta ingurumen hezkuntza nahiz sentsibilizazioa**

Batetik, Agenda 2030en bidez garapen jasangarriko plangintza- eta gobernantza-eredu bat bultzatzeko ekintzak mantentzen dira, eta, bestetik, herriarrak ingurumen balioetan hezteketa eta naturarekin lotzeko ekintzak, Gipuzkoa Naturaldia barne (Gipuzkoako Natura eta Ingurumeneko Zinemaren III. Erakustaldia- GNaturaldia Zinema, GNaturaldia konekta, Naturbarometroa, etab.).

#### **Programa 12- Sostenibilidad y educación y sensibilización ambiental.**

Se mantienen, por una parte, las acciones de impulso de un modelo de planificación y gobernanza para el desarrollo sostenible a través de las Agendas 2030 y, por otra, las acciones de educación de la ciudadanía en valores ambientales y de conexión con la naturaleza, incluyendo Gipuzkoa Naturaldia (III Muestra de Cine de Naturaleza y Medio Ambiente de Gipuzko- GNaturaldia Zinema, GNaturaldia konekta, Naturbarometroa, etc).

Premiak antzekoak dira 2023rako, baina udalerrietan eta ikastetxeetan ingurumena hobetzeko inbertsio proiektuak diruz laguntzeko partidak handitza planteatzen da, eremu horietan antzemendako beharren ondorioz.

Las necesidades son similares de cara a 2023, si bien se plantea un incremento de las partidas destinadas a subvencionar proyectos de inversión para la mejora ambiental de municipios y centros escolares, como consecuencia de las necesidades detectadas en estos ámbitos.

#### **13. programa - Jasangarritasun energetikoa**

2023ko aurrekontuak 2050 Gipuzkoako Jasangarritasun Energetikoaren Estrategiaren jarduketa-ildoak betetzeari erantzuten dio, departamentuaren konpromisoak barne, 4/2019 Legeak, Euskal Autonomía Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoak, for-sektore publikoari dagokionez (eraikinak eta instalazioak) ezarritako betebeharra betetzeari dagokionez.

#### **Programa 13- Sostenibilidad energética**

El presupuesto de 2023 da respuesta al cumplimiento de las líneas de actuación de la Estrategia de Sostenibilidad Energética de Gipuzkoa 2050, incluyéndose los compromisos del departamento en cuanto al cumplimiento de las obligaciones de la Ley 4/2019 de Sostenibilidad Energética de la CAPV al respecto del Sector Público Foral (edificios e instalaciones).

Programaren aurrekontua handitu egiten da Gipuzkoako eredu energetikoaren aldaketa bizkortzen saiatzeko. Horrela, kreditua handitu egiten da II. eta IV. kapituluetan, tokiko eta eskualdeko trantsizio energetikoa bizkortzeko proiektuak finantzatzeko, bai eta VI. kapituluan ere, Next Generation funtsei lotutako inbertsio proiektuak finantzatzeko.

El presupuesto del programa aumenta para tratar de acelerar el cambio de modelo energético de Gipuzkoa. De este modo, se incrementa el crédito en los capítulos II y IV, de cara a financiar proyectos aceleradores de la transición energética en el ámbito local y comarcal, así como en el capítulo VI para financiar proyectos de inversión ligados a los fondos Next Generation.

#### **14. programa - Erresilientzia eta azpiegitura berdeak**

#### **Programa 14- Resiliencia e Infraestructuras Verdes**



Programa hau ingurumen inpaktuak prebenitzeaz eta zuzentzeaz arduratzen da, bai eta lurraldea hobetzeaz ere, ingurumen-ebaluazioen, sailkatutako jardueren txostenaren, degradatutako eremuak lehengoratzeko jardueren eta Gipuzkoako Azpiegitura Berdearen Sarea bultzatu eta hobetzearen bidez.

Premiak oso antzekoak dira 2023rako, inbertsioen kapituluan izan ezik; izan ere, kapitulu hori handitu egiten da lurraldeko ingurumenaren aldetik degradatuta dauden eremuak lehengoratzeko eta azpiegitura berdearen funtzionaltasun ekologikoa hobetzeko proiektuei ekiteko.

#### 15. programa - Klima-aldaaketa

2023ko aurrekontuak Gipuzkoaren Klima Aldaketaren Kontrako 2050 Estrategiaren jarduera-ildoak betetzeari eta Naturklima – Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoren Fundazioari egindako ekarpenari erantzuten dio.

2023ko aurrekontua handitu egiten da IV. kapituluan, lurraldeko enpresen karbono aztarna murrizteko laguntza programa bat abian jartzeko, bai eta VII. kapituluan ere, GipuzkoaNaturklima Klima Aldaketaren Fundazioari inbertsio gaitasun handiagoa emateko. Aldiz, inbertsio beharrak murriztu egin dira, Naturklimaren egoitza eraikitzeko lanak aurrera egin duelako.

#### 16. programa - Hondartzen eta kostaldearen kudeaketa integrala

Aurrekontuak hondartzen eta itsasertzaren kudeaketa integralaren beharrei erantzuten die, bai eta kostaldeko udalei arlo horretan ematen zaien laguntzari ere.

Premiak oso antzekoak dira 2023rako. II. Kapituluan hazkundeak planteatzen dira, hondartzetako garbiketan eta zaintzan antzemandako beharrei aurre egiteko eta hondartzen eta itsasertzaren kudeaketan esku hartzen duten agenteak koordinatzeko.

#### 20 programa- Azpiegitura hidraulikoak.

Este programa se ocupa de la prevención y corrección de impactos ambientales y de la mejora del territorio a través de las evaluaciones medioambientales, del informe de actividades clasificadas, de actuaciones de restauración de áreas degradadas y del impulso y mejora de la Red de Infraestructura Verde de Gipuzkoa.

Las necesidades son muy similares de cara a 2023, salvo en el capítulo de inversiones que se incrementa para acometer proyectos de restauración de las áreas ambientalmente degradadas del Territorio y para la mejora de la funcionalidad ecológica de la infraestructura verde.

#### Programa 15- Cambio Climático

El presupuesto de 2023 da respuesta al cumplimiento de las líneas de actuación de la Estrategia Guipuzcoana de Lucha contra el Cambio Climático 2050 y a la aportación a la Fundación de Cambio Climático de Gipuzkoa – Naturklima.

El presupuesto 2023 se incrementa en el capítulo IV para la puesta en marcha de un programa de ayudas a la reducción de la huella de carbono de las empresas del Territorio, así como en el capítulo VII para dotar de mayor capacidad de inversión a la Fundación de Cambio Climático de GipuzkoaNaturklima. En cambio, se reducen las necesidades de inversión como consecuencia del avance en la construcción de la sede de Naturklima.

#### Programa 16- Gestión integral de playas y litoral

El presupuesto da respuesta a las necesidades de gestión integral de playas y litoral y al apoyo a los ayuntamientos costeros en dicha materia.

Las necesidades son muy similares de cara a 2023, planteándose incrementos en el capítulo II para hacer frente a las necesidades detectadas en la limpieza y vigilancia de playas y para la coordinación de los agentes que intervienen en la gestión de playas y el litoral.

#### Programa 20- Infraestructuras Hidráulicas



Aurrekontuak aurrera egiten du gauzatzeko dauden sistemak gauzatzen: edateko uraren hornidura eta hondakin uren saneamendua.

200 programaren guztizko gastu garbia handitu egin da beste erakunde batzuekin lortutako inbertsio konpromisoei erantzuteko. Oraindik mantentzen dira azpiegitura hidraulikoetako proiektuak idazteko ildo nagusiak, eta hitzarmenek bidez konprometitutako obrak egitea. Era berean, VI. kapituluaren kargurako ekipo informatikoen arloan Zuzendaritzak dituen beharrak eta II. kapituluaren kargurako gastu arruntak estaltzen jarraitzen da.

II. Kapitulua handitu egin da gastu arrunten kostuaren igoerari aurre egiteko.

## 21. Programa. Ur baliabideak eta uraren kalitatea

Funtsezko bi helburu garatzen ditu departamentu honen jarduketa operativoaren barruan: batetik, lur gaineko eta lurpeko baliabide hidrikoen planifikazioa, kontrola eta ebaluazioa; eta, bestetik, Gipuzkoako ibai, estuario eta akuiferoen uraren kalitatea kontrolatzea.

Programa honek aurreko urteko aurrekontuaren ildoan mantentzen du, eta ez dago alde aipagaririk.

## 22 programa- Ibaiak leheneratzea

Programa hau 2019an sortu da, eta helburutzat dauka bultzza egitea uretako ekosistemen morfología eta ingurumen berreskurapenari, eta zehazki, Oztopoak Iragazkortzeko Plan Gidarian jasotako ekintzei.

II. Kapitulua handitu egin da, ekintza horien oinarri diren Europako proiektuetatik eratorritako zabalkunde eta dibulgazio konpromisoei erantzuteko.

VI. Kapituluan proiektuak idazteria bideratutako baliabideak indartu dira (etorkizunean egin beharreko obrak diseinatzeko beharrezkoak dira), eta obrak gauzatzeko partida eta obra horiek gauzatu ahal izateko behar diren lursailen desjabetzea egokitu dira. Urte honetan aurreikusitako ekintzak % 40ko kofinantzaketa

El presupuesto avanza en la ejecución de los sistemas pendientes de abastecimiento de agua potable y de saneamiento de aguas residuales.

El gasto neto total del programa 200 se incrementa para atender los compromisos de inversión alcanzados con otras instituciones. Se siguen manteniendo las líneas principales de redacción de proyectos de Infraestructuras Hidráulicas y la ejecución de las obras comprometidas mediante convenios. Del mismo modo, se sigue dando cobertura a las necesidades de la Dirección en materia de equipos informáticos con cargo al capítulo VI, así como de los gastos corrientes con cargo al capítulo II.

El capítulo II se incrementa para atender al incremento de coste de los gastos corrientes.

## Programa 21- Recursos y calidad del agua

Desarrolla dos objetivos fundamentales dentro de la actuación operativa de este Departamento como son, por un lado, la planificación, control y evaluación de los recursos hidráulicos y control de la calidad del agua del Territorio y, por otro, el impulso de la recuperación morfológica y ambiental de nuestros ecosistemas acuáticos.

Este programa mantiene la línea del presupuesto del año anterior, sin que existan diferencias reseñables.

## Programa 22- Restauración fluvial

Este programa fue creado en 2019, y su objetivo es dar impulso a la recuperación morfológica y ambiental de los ecosistemas acuáticos, y en concreto, a las acciones contempladas en el Plan Director de Permeabilización de Obstáculos.

El capítulo II se incrementa para dar respuesta a los compromisos de difusión y divulgación derivados de los proyectos europeos que sustentan estas acciones.

Se refuerzan los recursos del capítulo VI destinados a la redacción de proyectos, necesarios para diseñar las obras a ejecutar en el futuro, y se ajusta la partida de ejecución de obras y la expropiación de los terrenos necesarios para poder materializar dichas obras. Las acciones previstas en esta anualidad podrán



europarraren xede izan ahalko dira EGEF funtsen bidez; obra batzuk % 100ean finantzatuko dira Europako funtsek MERLIN proiektuaren bidez, eta beste batzuk % 60an Europako funtsek LIFE KANTAUTIBAI proiektuaren bidez. Oro har, VI. kapitulua handitu egin da, Europako proiektuetatik eratorritako inbertsio konpromisoei erantzuteko.

ser objeto de cofinanciación europea al 40 % a través de fondos FEDER, algunas obras también serán financiadas al 100% por fondos europeos a través del proyecto MERLIN y otras al 60% por fondos europeos a través del proyecto LIFE KANTAUTIBAI. En su conjunto, el capítulo VI se incrementa para atender los compromisos de inversión derivados de los proyectos europeos.

### 23. programa – Aforalekuak berritzea

Programa honen helburua da Lurraldeko aforalekuak berritzea. Sare horren bitartez, Gipuzkoako ibaien emariak kontrolatzen dira, eta hainbat datu ere erregistratzen dira, hala nola uren kalitateari buruzkoak eta plumbometriari buruzkoak. Informazio hori funtsezkoa da, ingurunea ondo ezagutzeko, eta muturreko egoerak kudeatzeko, hala nola uholdeak, lehorteak eta kutsadura-gertakariak. Aforaleku batzuk orain dela 30 urte baino gehiago eraiki ziren, eta berrikuspen integral bat eskatzen dute, honelako alderdiak jasoko dituena: ekipamendua berritzea, azpiegiturak zaharberritzea, ibilgailu sarbidearen behar berriak, azpiegiturak baloratu eta egokitzea arrainak igarotzeko iragazkorra izan daitezen, eta abar. Orobata, jasotzen da aforaleku berriak eraikitzea, eta kontroleko eta aginteko postu zentralizatu bat sortzea.

VI. kapitulua handitu egin da, programa honetako inbertsio aurreikuspen berriei erantzuteko.

### Programa 23 – Renovación Estaciones de Aforos.

La finalidad de este programa es la renovación de las Estaciones de Aforo del Territorio. Mediante esta Red se controlan los caudales circulantes por los ríos de Gipuzkoa, y también se registran datos de calidad de aguas y de pluviometría. Esta información es fundamental de cara a tener un buen conocimiento del medio y a la gestión de situaciones extremas, bien de avenidas o sequías, o bien de episodios de contaminación. Algunas estaciones de aforo fueron construidas hace más de 30 años, y exigen una revisión integral que contemple aspectos tales como la renovación de equipos, rehabilitación de infraestructuras, nuevas necesidades de acceso rodado, valoración y adaptación de sus estructuras para que sean permeables al paso de peces, etc. Del mismo modo, también se contempla la construcción de nuevas estaciones de aforo y la creación de un puesto centralizado de control y mando.

El capítulo VI se incrementa a fin de atender las nuevas previsiones de inversión de este programa.




03 Departamentua INGURUMENEKO ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO DEPARTAMENTUA/

Departamento 03 DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y OBRAS HIDRÁULICAS

(Mila eurokotan/Miles de euros)

Programak	LANGILEAREN GASTUAK 1 GASTOS DE PERSONAL	ONDASUN ETA SERB.OHIKO 2 GTOS.CTES. BIEN.Y SERV	FINANTZA GASTUAK 3 GASTOS FINANCIEROS	TRANSFER. ARRUNTAK 4 TRANSFER. CORRIENTES	KONTINGENT. EZUSTEKOAK 5 CONTINGENC. IMPREVISTOS	INBERTSIO ERREALAK 6 INVERSIONES REALES	KAPITAL TRANSFER. 7 TRANSFER. DE CAPITAL	FINANTZA AKTIBOAK 8 ACTIVOS FINANCIEROS	FINANTZA PASIBOAK 9 PASIVOS FINANCIEROS	AURREKONTUA GUZTIRA TOTAL PRESUPUESTO
Programas										
01. Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Zerbitzu O Servicios Generales de Medio Ambiente y Obras Hi	1.247,61	144,60				169,34				1.561,55
10. Ingurumena/ Medio Ambiente	418,95	554,16				8,10				981,21
11. Ekonomia zirkularra/ Economía circular	165,26	1.477,76		7.052,84		50,00	1.615,00			10.360,86
12. Jasangarritasuna eta ingurumen hezkuntza eta senti Sostenibilidad y educación y sensibilización ambient	73,48	138,50		105,00			350,00			666,98
13. Jasangarritasun energetikoa/ Sostenibilidad energética	323,35	697,15		919,00		7.566,22	1.148,47			10.654,19
14. Erresiliencia eta Azpiegitura Berdeak/ Resiliencia e Infraestructuras Verdes	153,89	71,17				495,00				720,06
15. Klima aldaketa/ Cambio climático	247,32	275,00		1.240,38		2.741,14	125,00			4.628,84
16. Hondartzen eta itsasertzaren kudeaketa integrala/ Gestión integral de playas y litoral		2.431,01		525,60		10,00				2.966,61
20. Azpiegitura hidraulikoak/ Infraestructuras hidráulicas	932,37	188,33		25,00		3.811,30				4.956,99
21. Ur baliabideak eta uraren kalitatea/ Recursos y calidad del agua	589,02	367,63				251,68				1.208,33
22. Ibaia leheneratzea/ Restauración fluvial	216,24	40,00		10,00		980,00				1.246,24
23. Aforalekuen eraberritzea/ Renovación red aforos		9,30				375,00				384,30
<b>Departamentua Guztira</b>	<b>4.367,48</b>	<b>6.394,61</b>		<b>9.877,82</b>		<b>16.457,78</b>	<b>3.238,47</b>			<b>40.336,16</b>
<b>Total Departamento</b>										



- 1. LANGILEAREN GASTUAK/GASTOS DE PERSONAL
- 2. ONDASUN ETA SERB.OHIKO/GTOS.CTES. BIEN.Y SERV
- 4. TRANSFER. ARRUNTAK/TRANSFER. CORRIENTES
- 6. INBERTSIO ERREALAK/INVERSIONES REALES
- 7. KAPITAL TRANSFER./TRANSFER. DE CAPITAL